


INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2003ko UZTAILA

Euskal AEko industri jarduera %1,9 hazi zen 2003ko uztailean

Uztaileko Industri Produkzioaren Indizean, Gipuzkoako hazkundera nabarmendu da, Arabakoaren eta Bizkaikoaren aldean.

2003ko uztailean, %1,9 hazi zen Euskal AEko industri jarduera, 2002ko hil beraren aldean, lan-egutegiaren balio absolutuetan zein homogeneotan, EUSTATEk landutako datuen arabera. Urtearen lehenengo zazpi hilabeteetako hazkunde-tasa metatuak, aurreko urteko aldi beraren aldean, %1,2ko hazkundera izan du balio absolutuetan, eta %1,0ko lan-egutegiaren balio homogeneotan.

Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hiruhileroko hazkunde zuzendua, 1997-2003



(*) 2003ko uztaileko urte arteko hazkunde zuzendua

Iturria: EUSTAT

2003ko uztailean, urte arteko aldakuntzarik positiboak, balio absolutotan, sektore hauei egokitu zaizkie: *petrolio finze*a (%28,8), *ehungintza eta jantzigintza* (%9,0), *material elektrikoa* (%5,4), *kautxua eta plastikoa* (%5,3), eta *elikagai-industria* (%4,8) arloei, besteak beste.

Urte arteko hazkunde-tasa negatiboak, berriz, honako hauek izan dituzte: *larruaren eta oinetako en industria* (%-8,5), *metalezko eta ez-metalezko meak* (%-7,1), *zurgintza* (%5,3) eta *bestelako manufakturak* (%4,2) arloek, batik bat.

Ondasunen helburu ekonomikok, 2003ko uztailean, igo egin dira ekipo-ondasunen (%2,4) eta bitarteko ondasunen (%0,9) urte arteko tasak, baina jaitsi egin da kontsumo-ondasunen (%-0,3) tasa.

Urteko lehenengo zazpi hilabeteetan, hazkunde metatu handienak, balio absolututan, sektore hauei egokitu zaizkie: *petrolio finntzea* (%15,9), *ehungintza eta jantzigintza* (%7,8), *kautxua eta plastikoa* (%6,7), *material elektrikoa* (%3,4), eta *garraio-materiala* (%2,6), besteak beste.

Tasa metaturik negatiboenak, berriz, honako hauek izan dituzte: *larruaren eta oinetakoen industria* (%-13,7), *bestelako manufakturak* (%-6,2), *elikagai-industria* (%-2,5) eta *makineria* (%-0,5) arloek, batik bat.

Lehenengo zazpi hilabeteetako aldakuntza metatuek hazkundeak izan dituzte bitarteko ondasunetan (%1,8) eta ekipo-ondasunetan (%0,2), baina kontsumo-ondasunek %2,5eko jaitsiera izan dute.

Lurralde historikoka, uztaileko indize orokorrean Gipuzkoako (%5,3) urte arteko tasa nabarmendu da, Arabakoaren (%1,5) eta Bizkaikoaren (%-1,0) aldean. Urteko lehenengo zazpi hilabeteetan ere desberdintasunak ageri dira: Bizkaia eta Gipuzkoak %1,5eko hazkunde metatuak izan dituzte eta Araban produkzioa jaitsi egin da (%-0,1) aurreko urteko aldi beraren aldean.

Taula: 2003ko UZTAILA. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen aldakuntza-tasa (%)

Kontzeptua	Aurreko urteko hil beraren aldean		2002ko urtarril-uztaileko tasa metatua		2003ko urtarril-uztaileko tasa metatua	
	originala	zuzendua(*)	originala	zuzendua(*)	originala	zuzendua(*)
Indize orokorra: Euskal AE	1,9	1,9	-1,8	-1,2	1,2	1,0
Araba	1,5	1,5	-0,9	-0,2	-0,1	-0,2
Bizkaia	-1,0	-1,0	-1,5	-0,9	1,5	1,4
Gipuzkoa	5,3	5,3	-2,7	-2,0	1,5	1,3
Indizeak helburu ekonomikoka- Euskal AE						
Bitarteko ondasunak	0,9	0,9	-1,5	-0,9	1,8	1,7
Kontsumo-ondasunak	-0,3	-0,3	1,2	2,0	-2,5	-2,8
Ekipo-ondasunak	2,4	2,4	-3,3	-2,6	0,2	0,0

(*) Lanegunez zuzendua.

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Luis Carlos Jorge Alonso

Tlf:+34-945-01 75 14 Faxa+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es